

# SEGMENTAZIOA

Produktu hau merkaturatzean, hasieran bezero espezifiko bati saltzeko asmoarekin aterako dugu eta ondoren zabaltzen joango gara. Produktua edozeinek erabiltzeko aukera izango duen arren, 14-50 urte bitarteko bezeroentzat da bereziki, hala ere erabiltzeko orduan oso erraza izango da bezero guztiak ulertu dezaten eta ondo erabili dezaten. Hori esanda, produktua ilea zaintzen duten banako guztiei zuzenduta dago eta gehienbat ile luzea dutenentzat, azken finean haiek baitira ilea garbitzen eta lehortzen denbora gehien pasatzen dutenak. Hala ere, gure produktua egunerokotasunean erabiltzeko erosoa izatea nahi dugu eta berdin du zein den zure ile mota.

**0-13 urte** → adin hauen artean mugitzen diren jende multzoak, nagusiki haien gurasoak erosiko lukete produktua. Orduan, produktua hau interneten bidez eta denda fisikoetan saltzea erabaki dugu, hala nola: amazon, eroski (fisiko eta internet), ile-apaindegietan, parafarmaziak...

**14-50 urte** → 18 urte baino gutxiago dituztenak, beraien gurasoen “baimena” behar dute online eta denda fisikoetan erosketak egiteko, baina aldiz, haiek mugikorra eta ordenagailua dutenez, gai dira internetera sartzeko eta produktuak ikusteko, eta haien gurasoei zer produktu nahi duten eskatzeko. Aldiz, 18 urte baino gehiago dutenak, ez dute inoren baimenik behar eta nahi dutena erosi ahal dute. Gainera, denda fisikoetan erosi dezakete, baina nahiago izaten dute internet bidez erosketak egitea beraien adinean, eta gure zerbitzua erraz erabiliko da.

**50 urtetik gorakoak** → multzo honetan dauden pertsonak, nahiago izaten dute denda fisikoetan eta beraien betiko dendetan erostea, internet bidez baino. Bestalde, beraien seme-alabek edo dena delakoek lagundu al diete interneten bidez erosten, aukera askotako produktu desberdinak daudelako online dendetan.